



Beasaingo Udala

ESP. KODEA. 2024HIEU0001	
EXPEDIENTEA	HITZARMENAK: EUSKARA
TITULARRA	BEASAINGO UDALA
TOKIA	BEASAIN

Beasainen, bi mila eta hogeita lauko otsailaren 13an

BILDURIK

Alde batetik, **Leire Artola Ugalde** andrea, BEASAINGO UDALAREN (IFK P2002100B) ordezkari gisa, Beasaingo Udalaren Alkate-lehendakaria, Toki araubidearen oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 21. artikulua.

Bestetik, **Jon de la Puente Vitini** jauna, CAF, Construcción y Auxiliar de Ferrocarriles S.A.ko (IFK A20001020) Lan Harremanetako Arduraduna.

Eta **Olatz Osa Zubia** andrea, ELKAR ARGITALETXEAK S.L.ko (IFK B20606422) zuzendaria.

AURREKARIAK

- 1994 urtean sortu zuen Beasaingo Udalak, Beasaingo CAF enpresaren babesarekin eta ELKAR argitaletxearen laguntzarekin, euskal kultura zabaltzeko eta idazle gazteen lanari laguntza emateko asmoz, IGARTZA LITERATURA-SORKUNTZAKO BEKA idazle berrientzat. Horrela jasotzen da Beasaingo Udalak eta ELKAR argitaletxeak 1994ko maiatzaren 23an sinatutako hitzarmenean. Baina, CAF enpresarekin ez zen ezer sinatu.
- LITERATUR BEKA honek 6.000,00 €-ko diru-laguntza izan du hasieratik CAF enpresak jarriak. 2013ko otsailaren 20an, ordea, CAF enpresak idatzi bat aurkeztu zion Beasaingo alkateari urte horretatik aurrera bere diru ekarpena 6.000,00 €koa izan beharrean 4.000,00 €-koa izango zela jakinarazteko.
- Ondorioz, data horretatik aurrera saria osatzeko falta ziren 2.000,00 €-ak ELKAR ARGITALETXEAK eta BEASAINGO UDALAK erdi bana ordaintzea erabaki zen.



Beasaingo Udala

4. Bestalde, epaimahaiak hala erabaki duenean, 3.000,00 €-ko akzesit saria ere eman da. Hori dela eta, ELKAR argitaletxeak eta Beasaingo Udalak erdi bana ematea adostu zuten.
5. Beasaingo Udalak, CAFek eta ELKAR ARGITALETXEAK 2019ko irailaren 6an sinatutako hitzarmenean daude jasota hiru aldeetako bakoitzak saria ordaintzeko egingo duen diru ekarpena eta aldeetako bakoitzaren konpromisoak.
6. 2019tik 2023ra irizpide horiek mantendu dira.
7. 2024an hitzarmen honetako hiru aldeak elkaturik, bekaren diru sariaren kopurua 6.000,00 €-tik 10.000,00 €-ra handitzea erabaki dute. Eta horren ondorioz, hitzarmena berritu beharra dago.

Horren ondorioz, hiru aldeek elkarri hitzartzeko duten ahalmena aitortu diote, eta hitzarmen hau honako klausula hauen arabera idaztea aitortu dute:

KLAUSULEKIN

Lehenik. Hitzarmen honen helburua.

Hitzarmen honen helburua, IGARTZA LITERATURA- SORKUNTZAKO BEKari dagokionez, ELKAR argitaletxearen, CAF(Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles) enpresaren eta BEASAINGO UDALAREN arteko harremana eta elkarlana zehaztu eta finkatzea da. BEASAINGO UDALA sustatzailea izanik eta CAF eta ELKAR enpresak babeslea eta laguntzailea hurrenez hurren.

Bigarren. Beasaingo Udalaren betebeharrak:

- a) Urteko aurrekontuan 10.000,00 €-ko partida aurreikusiko du saria emateko, eta horietatik 2.000,00 € Beasaingo Udalak jarriko ditu.
- b) Beasaingo Udalak jasoko ditu CAFek eta ELKAR ARGITALETXEAK jarri beharreko diru kopururak (CAFek 6.666,00 € eta ELKARREK 1.334,00 €).
- c) Oinarriak onartzea, argitaratzea lehiaketa prozedura erabiliz eta horien zabalkundea egitea.
- d) Udaletxean jasotako proiektuak epaimahaiari helaraztea modu anonimoan.
- e) Epaimahaiak proiektuak baloratu ondoren, sari-emate ekitaldia antolatzea.



Beasaingo Udala

- f) Saridunari 10.000,00 € ematea.
- g) Epaimahaiak akzesit saria ematea erabakitzen duenean, irabazle horri 1.500,00 € ematea.
- h) Epaimahai zerbitzuaren kostuaren erdia ordaintzea.
- i) Aurreko edizioan saritutako liburuaren aurkezpena egitea.
- j) Argitaratutako liburuaren 20 ale CAF enpresari ematea.

Hirugarren. CAF enpresaren betebeharrak:

- a) IGARTZA BEKArek babesle nagusia den heinean, 6.666,00 € jarriko ditu urtero horretarako eta Beasaingo Udalari emango dizkio saritutakoari 10.000,00 €-ko saria ordaintzeko.
- b) Sari-emate ekitaldian eta liburu aurkezpenean parte hartuko du.

Laugarren. ELKAR argitaletxearen betebeharrak:

- a) Epaimahaiak eratu eta koordinatuko du eta idazlearekin batera edizioa prestatu eta liburuak argitaratuko ditu. Bere esku egongo da argitalpenaren kostua, kudeaketa eta horren inguruko erabakiak hartzea.
- b) ELKAR argitaletxeak egile eskubideak ohiko moduan ordainduko dizkio egileari.
- c) ELKAR argitaletxeak Beasaingo Udalari argitaratutako liburuaren 50 ale entregatuko dizkio dohainik. Argitaratutako liburuaren ale gehiago eskuratu nahiko balitu Beasaingo Udalak ordaindu egin beharko ditu baina beherapenarekin lortuko ditu.
- d) ELKAR argitaletxeak saritutako liburuaren argitalpenean, Beasaingo Udalaren eta CAF enpresaren aipamenak leku duin eta ikusgarrian egingo ditu, lehena IGARTZA BEKArek antolatzaile eta bigarrena babesle gisa jasoz.
- e) Saritutakoari 10.000,00 euroko saria emateko 1.334,00 euroko diru sarrera egingo dio Beasaingo udalari.
- f) Epaimahaiak akzesit saria ematea erabakitzen duenean, irabazle horri 1.500,00 euro ematea.
- g) Epaimahaiaren kostuaren erdia ordaintzea.



Beasaingo Udala

Bosgarren. Hitzarmenaren iraupena:

Hitzarmenak lau urteko iraupena izango du, hitzarmena sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena luzatzea, gehienez ere beste lau urtez, edo hitzarmena azkentzea.

Seigarren. Jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko mekanismoak:

Hitzarmenaren eta alderdi sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko, eta hitzarmena interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko, Batzorde bat eratuko da. Kide hauek osatuko dute:

- Udal-erakundearen aldetik, Beasaingo Alkatea eta bere iritzia araberaren behar diren udal teknikoak.
- CAFen aldetik, Jon de la Puente Vitini edo berak izendatzen duen ordezkaria.
- ELKAR argitaletxearekin aldetik, Xabier Mendiguren Elizegi editorea.

Zazpigarren. Hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzearen ondorioak:

Sinatzailearen batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak betetzen ez baditu, ez-betetzea egin duen alderdiari jakinaraziko zaio, epe jakin batean bete ditzan urratutzat jotzen diren betebeharrak eta konpromisoak.

Ezarritako epea igarotakoan, ez-betetzeak jarraitzen badu, hitzarmena suntsiarazi egingo da.

Zortzigarren. Hitzarmena suntsiaraztea:

- 1- Epea amaitzen denean.
- 2- Bi alderdiek berariaz hala erabakitzen dutenean.
- 3.- Alderdiek beren gain hartutako betebeharrak ez betetzea.
- 4.- Hitzarmenaren deuseztasuna deklaratzeko duen ebazpen judiziala.

Hitzarmenaren helburuak bi aldeentzat onargarriak diren baldintzetan bete direla ulertuko da.

Jarduketak gauzatze-prozesuan badaude, alderdiek, jarraipen-, zaintza- eta kontrol-batzordeak proposatuta, abian diren jarduketan jarraipena eta amaiera adostu ahal izango dute, eta epe luzaezina ezarriko dute amaitzeko.

Bederatzigarren. Hitzarmenaren izaera eta jurisdikzio aplikagarria:



Beasaingo Udala

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulua arabera, hitzarmen honen izaera juridikoa administratiboa da, eta, ondorioz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa da eskuduna.

Hitzarmen hau aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen interpretazio, aldaketa, ebazpen eta ondorioei buruz sor daitezkeen gatazkak alderdien arteko akordio bidez ebartziko dira, eta, halakorik ezean, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumena izango da.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, alderdiek hitzarmen hau sinatu dute, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Leire Artola Ugalde
Beasaingo Alkatea

Jon de la Puente Vitini
CAFeko LHn arduraduna

Olatz Osa Zubia
Elkar argitaletxeko
zuzendaria

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU6d766fc9-3eb4-4a2e-83c8-23152f0e3b6e**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01910>

